

TOKIKO IRAUNKORTASUN TXOSTENA 2008
INFORME DE SOSTENIBILIDAD LOCAL 2008


ZARRAUTZ



EUSKO JAURLARITZA
ASSEMBLEA EUSKARAZ
PARLAMENTU EUSKARA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO





ZARAUTZ:
 LONGITUDEA: 2° 10' 0" M
 LATITUDEA: 43° 17' 0" I

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4 or.
ZARAUTZEN IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA	5 or.
TOKIKO AGENDA 21 ZARAUTZEN: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	5 or.
Tokiko Agenda 21en Zarauzko jarraipenaren eta ebaluazioaren urteko eredu, Udalsarea 21eko kide gisa	6 or.
▶ Ekintza Planaren ezarpen-mailaren bilakaera	6 or.
▶ Udalerriaren bilakaera: Tokiko Iraunkortasunaren Adierazleen sistema	8 or.
Tokiko Agenda 21eko bilakaera kualitatiboa (GPS 21 eredu).	8 or.
EKINTZA ETA JOERAK GAI-EREMUKA	
1.- Naturaren eta paisaiaren balioak	10 or.
2.- Kalitatezko hiri-espazio bat sustatzea	12 or.
3.- Mugikortasun iraunkorrerako planifikazio integratua	14 or.
4.- Hondakinen minimizazio, berrerabilera eta birziklatzea	16 or.
5.- Herritarrak sentsibilizatzea eta udal-kudeaketan iraunkortasun-irizpideak integratzea	18 or.
6.- Uraren kontsumoa murriztea eta kudeaketa integrala hobetzea	20 or.
7.- Energia aurrezte eta energia-efizientzia	22 or.
8.- Jardueren kudeaketa eta ingurumen-arriskuaren prebentzioa	24 or.
9.- Tokiko garapen ekonomikoa	26 or.
10.- Herritarrentzako oinarritzko zerbitzuak hornitzea	28 or.
GAI-EREMUEN AZKEN BALANTZEA	30 or.
ETORKIZUNENKORREKAK	31 or.

ARGITARATZAILEA: Zarauzko Udala
 EDUKIEN GAUZATZEA: Minuartia Enea
 www.minuartia.com_www.eneaconsultoria.com
 DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Acción Creativa, S.L.
 IMPRIMATZEA: Gráficas Ulzama



Azken urte hauetan tokiko errealitatea eta errealitate globala asko aldatu dira, behar eta arazo berriak sortu dira, esate baterako, aldaketa klimatikoa, eta horien aurrean ezin dugu beste alde batera begiratu. Egoera horren aurrean Zarautzek iraunkortasunaren alde egindako apustuarekin jarraitzen du eta gainera apustu hori orain irmoagoa eta asmotan sendoagoa da. Legealdi honetan Agenda 21eko zinegotzigoa sortu da. Duela gutxi Udaltzarrak Aalborg-eko Konpromisoak berretsi ditu eta Tokiko Agenda 21 indartzea erabaki du, eta agenda hori iraunkorra, zeharkakoa, parte-hartzailea eta operatiboa izan dadin bultzatu du.

2001etik aurrera, artean Tokiko Agenda 21 ia gehienentzat termino edo kontzeptu ez-ezaguna zenean, iraunkortasunaren alde lan egiteko konpromiso instituzionala hartu zen, Aalborgeko Gutuna sinatuz. Lehen urratsa gure udalerria zein egoeratan zegoen ezagutzea izan zen, horrela, jarduera-helburu estrategikoak ezarri ahal izateko, eta azkenik, helburu horiek lortzeko ekintza zehatzak definitzea. Horretarako, udalerriko hainbat eragile sozial eta ekonomikoren ikuspuntuak eta ekarpenak baliatu ziren, herritarrentzako partaidetza-foroaren bitartez, prozesu honetan guztian gako-pieza baitira inolako zalantzarik gabe. Azkenean, jada 2002an, Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen Zarautzko Iraunkortasunerako Tokiko Jarduera Plana, eta horrekin batera sartu ginen Udalsarea 21en, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean.

Urteotan egin diren ahalegin nagusiak Zarautz udalerrri osasuntsu, bizi eta irisgarria, ikuspuntu eta kultura desberdinen integratzailea, eta bere natur eta kultur ondarearekiko abegitsua bihurtzeko izan dira, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta udalerrri iraunkor baterantz aurrera egiteko azken finean.

Jarduketa asko egin dira, eta era desberdinetakoak. Urtero, 2005az geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalsarea 21ek sustatzen dituzten Tokiko Agendak 21 ebaluatzen eta haien jarraipena egiteko programetan hartzen du parte udalerrriak. Hori dela-eta, urtez urte ezagutu ahal izan dugu, gure Ekintza Planaren exekuzio-maila, eta aldi berean, baita zein emaitza lortu diren ere.

Lehen Tokiko Ekintza Plana bere indarraldiaren amaierara iritsi den honetan, balantzea egiteko unea iritsi da. Zer egin da azken urteotan?, zeintzuk izan dira emaitzak? eta, zeintzuk etorkizuneko erronkak? Ondoren aurkezten den txostenak galdera horiei erantzun nahi die, eta aldi berean, datozen urteei begira kontuan izan behar diren gako-alderdiei buruzko gogoetarako ideiak proposatu eta plazaratu.

Jon Urien
ZARAUZKO ALKATEA

Gloria Vázquez
ZARAUZKO TOKIKO AGENDA 21EKO ZINEGOTZIA

Ingurumenerako eta Garapenerako Mundu Batzordearen **Brundtland txostenak**, 1987an argitaratuak, lehen aldiz jasotzen du **garapen iraunkorraren** kontzeptua, eta honela definitzen du: etorkizuneko belaunaldien beharrak konprometitu gabe egungo beharrak asetzen dituen garapena. Geroztik, tokian tokiko mailan, **Tokiko Agenda 21en bidez ikusgai egin diren** estrategia eta tresna ugariaren garapenean aurrera egin da.

Tokiko Agenda 21, udalerriko egoeraren azterketa sakon batetik abiatuz, Ekintza Plan bat ezartzeko aukera ematen duten tresna da. Tokiko politiken eragina zuzentzea eta hobetzea du helburu, eta azken batean, oreka bat lortzea udalerriko garapen ekonomikoaren, sozialaren eta ingurumenekoaren artean. Alegia, garapen iraunkorra sustatzea.

1992an, **Rio de Janeiron** osatu zen **Lurraren Goi Bileran** onartu ziren **Rioko Deklarazioa** eta Agenda 21en jarduketa-programa orokorra. Estatuaren, gizarteetako gako-sektoreen eta pertsonen arteko lankidetzeta-maila berriak sortuz garapen iraunkorra sustatzera bideratutako soluzioen planteamenduari buruzko asmo-deklarazio bat izan zen programa hori. 1994an, bestalde, **Europako Hiri eta Herrien Iraunkortasunerako 1. Konferentzia** egin zen Danimarkako Aalborg hirian. Bertan, Europak bat egin zuen Rioko helburuekin eta European Tokiko Agenda 21 izenekoak bultzatzeko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso hori ikusgai egiten da **Aalborgeko Gutunean**, eta gutun hori sinatzea izan da erakundeen arteko adostasunaren lehen urratsa.

Hamar urte geroago, 2004an, berriz ere Aalborg hirian egin zen **Europako Hiri eta Herrien Iraunkortasunerako 4. Konferentzia** (Aalborg+10), urrats garrantzitsua eman zen. Han zeuden toki-agintariek hamar Konpromiso definitzea adostu zuten, eta horrela Garapen Iraunkorrean duten zereginari buruzko marko berri bat ezarri zuten, argiagoa, zehatzagoa eta egituratuagoa. Horrela jaio ziren **Aalborgeko Konpromisoak**.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan eta Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 izenekoaren bidetik, **Euskal Herriko Iraunkortasunerako Konpromisoa** sinatu zen. Halaber, 2002ko abenduan sortu zen **Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea, misio** honekin: Tokiko Agenda 21en **Ekintza Planen ezarpen efektiboa** sustatzea eta udal-kudeaketako arlo guztietan **iraunkortasun-irizpideak txertatzea**. Une hartan 16 udalerrri sartu ziren Sarearen barruan; hain zuzen ere, beren Ekintza Planak onartu ondoren iraunkortasunerantz aurrerapausoak emateko konpromiso irmoa erakutsi zutenak. Gaur egun, berriz, 197 udalerrri daude Udalsarea 21en.

Zarautzek 2001ean sinatu zuen **Aalborgeko Gutuna**. Eta konpromiso instituzional horretatik aurrera, abian jarri zen herritarrek parte hartzeko foroa, eta lehen urratsak ematen hasi ziren Ekintza Plan bat prestatzeko. Planaren diagnostikoa eta diseinua prestatzeko prozesua Udaltalde 21 proiektu pilotuaren barnean egin zen, eta bertan parte hartu zuen Zarautzek Euskadiko beste 7 udalerrirekin batera. **2002an, Udalaren Osoko Bilkurak Zarautzko Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana onartu zuen, eta horrekin, Udalsarea 21eko kide izatera pasatu zen**, haren sorreran parte hartu zuten lehen 16 udalerrietako bat bihurtuz era horretan.


Bi urte geroago, 2004ko abenduan, Zarautzko Udalak bat egin zuen **Aalborgeko Konpromisoekin**, tokiko iraunkortasunaren aldeko apustua berretsiz.

Tokiko Ekintza Plana onartzearekin eta ondoren ezartzearekin, Zarautz erabat sartzen da iraunkortasunaren aldeko tokiko ekintzaren estrategian, era horretan berretsiz nazioarteko eta EAEko konpromisoak arlo horretan.

TOKIKO AGENDA 21 ZARAUZTEN: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA



Zarauzko Ekintza Planak, 2002an onartuak, **105 ekintza ditu, hamar lerro estrategikotan egituratuak**, eta eremu hauetan banatuak: lurraldea, ingurumena eta sozioekonomikoa. Arlo horietako bakoitzaren pisu erlatiboa ez da orekatua; ikus daiteke, lehen begiratu batean, Plan hau ingurumenera oso bideratua dagoela.



bakoitza osatzen duten ekintza bakoitzean burutu diren jarduketak. Ebaluazio-prozesuak 5 aurrerapen-egoera posibletan sailkatzen ditu ekintzak: Burutua, Amaitzen, Aurreratua, Hasia eta Hasteke. Informazio kualitatibo horretatik abiatuz, erabiltzen den metodologiak emaitza **kuantitatiboak** aterako aukera ematen du.

Zarautzen kasuan, Planak 2002 eta 2007 artean izan duen ezarpen-maila aztertu da. Emaitzak ikusita, **goranzko joera** antzematen da eta **urteko ezarpen-erritmo egonkorra**. Emaitza hauek Udalsarea 21eko gainerako udalerrien emaitzekin alderatuta, ikusten da ezarpen-maila Zarautzen batez bestekoa baino txikiagoa dela. Halere, komeni da gogoratzea Zarautz izan zela bere Plana diseinatu eta onartu zuen aurreneko udalerrietako bat. Urteekin, Udalsarea 21en barruan, aitzindari izan diren udalerrri hauen esperientziak balio izan du, poliki-poliki konpromiso hau bere egiten joan diren gainerako udalerrien TA21en Planak hobeto definitzen jarraitzeko. Gainera, zerbitzu edo tresna berriak sortuz joan dira ezarpena sustatzeko (diru-laguntzen lerroak, ekitaldeak,..etab.), eta zalantzarik gabe, horiek lagungarriak izan dira Plan gehienek exekuzio-maila handiagotzeko.

ZARAUZKO TOKIKO AGENDA 21EN JARRAIPENAREN ETA EBALUAZIOAREN URTEKO EREDUA UDALSAREA 21EKO KIDE GISA

Udalsarea 21eko kide diren udalerrri guztiek dituzte beren eskura hainbat lanabes eta zerbitzu, beren Ekintza Planak errazago kudeatzeko, besteak beste, Tokiko Agenda 21 ebaluatzen eta haren jarraipena egiten laguntzeko Programak:

Tokiko Ekintza Planen exekuzioa ebaluatzen laguntzeko Programa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorren Departamentuak sustatzen du, Gipuzkoako udalerriei laguntzeko beren Ekintza Planen **exekuzioaren ebaluazioarekin eta urteko egitarauarekin**.

EAE n TA21en ebaluatzeko eta haien jarraipena egiteko Programa MUGI 21 lanabesaren bidez. IHOBek sustatzen du, Udalsarea 21en Idazkaritza Tekniko gisa. Programa honen bidez, Gipuzkoako udalerriek laguntza jasotzen dute **tokiko iraunkortasunaren adierazleak kalkulatzeko**.

MUGI 21 izeneko tresna informatikoan oinarritzen dira bi prozesu horiek. Tresna hori Udalsarea 21eko kideen Ekintza Planak kudeatzeko diseinatu da bereziki. Bi programek jarraitzen duten metodologia udalerrri guztientzat berbera izateak, izaera objektiboa ematen dio prozesuari, eta emaitzak alderatzeko eta interpretatzeko lana errazten du.


Ebaluatzeko eta jarraipena egiteko prozesuek marko egokia eratzen dute Planean sartuta dauden ekintzen exekuzioa zein egoeratan dagoen eta iraunkortasun-helburuak zenbateraino bete diren aztertzeko eta interpretatzeko urtez urte

Zarauzko udalak 2005az geroztik darama bi Programa horietan parte hartzen. Horren ondorioz, ezagutzen da Ekintza Planaren ezarpen-maila, eta badago informazioa udalerrri horretan egon den bilakaerari buruz eta hainbat iraunkortasun-helbururen lorpen-mailari buruz.

Ekintza Planaren Ezarpen-mailaren Bilakaera

Ekintza Planen ezarpen-maila ezagutzeko, urtero zehatz-mehatz berrikusten dira Plan

ZARAUZKO EKINTZA PLANAREN EXEKUZIO-MAILA, UDALSAREA 21EKO



Zarauzko Ekintza Planak %44ko exekuzio-maila lortu du onartu zenetik sei urte igaro direnean

Ebaluatu den azken urte honetan ekintzek lortu duten exekuzio-egoera hau da:

EBALUATUTAKO AZKEN URTEAN PLANEKO EKINTZEN EXEKUZIOAREN EGOERA (2007)



Burutua eta amaitzen dauden ekintzak ekintza guztien % 33,3 dira, eta hori Planaren herena da. **Hasitako ekintzak % 11,1** dira eta **abian jartzera iritsi ez direnak, berriz, % 30,3.**

TOKIKO AGENDA 21 ZARAUTZEN: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA



Plana berrikusteko prozesuaren lehen urratsetako bat izango da aztertzea **zein arrazoi dela-eta ez den abian jarri oraindik hasteke dauden ekintza hauetako bakoitza**. Aurrera daiteke gaur egun zaharkituta edo testuinguruz kanpo dauden ekintza ugari egongo dela. Izan ere, hainbat urte igaro baitira Plana onartu zenetik, eta udalerrriaren errealitatea, eta ondorioz, udalerrriaren beharrak, ez baitira lehengo berak.

Zarauzko lehen Ekintza Plana amaitzen ari da. Datozen hilabeteetan berrikusiko da eta berrikuste horretatik aterako da Plan berria. Tokiko Iraunkortasunaren Txosten honek lortu diren helburuen ikuspegi orokor bat eskaintzen du, eta prozesu horren osagarri den azterketa- eta gogoeta-marko bat da.

UDALERRIAREN BILAKAERA: TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEEN SISTEMA

Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasunaren Adierazleen sistema, guztira, **13 adierazle** komunek osatzen dute.

Iraunkortasun-txosten hau egiteko, **datu-kalitate** eta **iturri-fidagarritasun** onena eskaintzen dituzten adierazleak hautatu eta aztertu dira batetik, eta Ekintza Planak gehien eragiten dituenak, bestetik. Adierazle horien balioaren eta bilakaeraren inguruko azalpenak Txosten honetan dagokien ataletan ematen dira.

TOKIKO AGENDA 21EN BILAKAERA KUALITATIBOA (GPS 21 EREDUA)

2007an egin zen Zarauzko Tokiko Agenda 21en ebaluazioa, GPS 21 ereduari jarraiki. Eredu horrek batez ere kualitatiboki aztertzen ditu Tokiko Agenda 21en ondorengo hiru ardatzak: **udala, gizartea eta Ekintza Plana**.

Eredu horren metodologia **Tokiko Agenda 21en gako-eragile** hautatu batzuei egindako **elkarrizketa sakonetan** oinarritzen da nagusiki: pertsonal politikoari, pertsonal teknikoari eta herritarren foroko ordezkariari. Aldez aurretik definitutako gidoi baten arabera aztertzen da, hiru ardatz horietako bakoitzarentzat, zein diren gako-faktoreak eta identifikatzen dituen zeharkako elementuak. Eta hortik aurrera, informazioaren azterketak gomendioak edo erronka konkrituak ateratzeko aukera ematen du, aztertutako alderdiak hobetzeko.

Ondoren aurkezten dira analisi horretatik ateratako **emaitzak** eta **hobetzeko gomendioak**, aztertutako ardatz bakoitzerako:

UDALAREN ARDATZA

Bete dira Tokiko Agenda 21ek ezarritako protokoloak. Ikusi da badagoela **laguntza teknikoa eta laguntza politikoa** ere sumatzen da. Halere, pertsonal teknikoari eta politikoari eskaintzen zaien informazioa eta trebakuntza ez da nahikoa. Ikusi da, nagusiki, Udala osatzen duten departamentuen edo sailen artean **zeharka lan egiteko beharra**.

Iraunkortasun-irizpideak, neurri batean behintzat, lantzen eta barneratzen ari dira departamentuetan. Komeniko litzateke irizpide horiek **indartzea**, eraginkorrak direla ziurtatzeko.

GIZARTEAREN ARDATZA

Indar handiz ekin zioten hiritarrek foroaren bidez parte hartzeari, ez bakarrik ordezkari ugari joaten zelako bilkuretara, baita horiek erakusten zituzten gogo eta intereresagatik ere. Baina indar hori galtzen joan da. Erabili diren dinamikak ez dira beti egokienak izan. Horrekin guztiarekin, esan daiteke foroan parte hartzen dutenak motibazioa galtzen joan direla. Egoera honen aurrean, dinamikak indartu beharko lirateke, eta parte-hartzeari itzuli beharko litzaioke dagokion zeregina.


EKINTZA-PLANAREN ARDATZA

Osoko Bilkuran aho batez onartu zen Ekintza Planak bete ditu bere egituraren diseinurako ezarritako zituen oinarritzko protokoloak. Halere, Plana **ingurumenera oso bideratua** dago, eta bigarren mailan uzten ditu iraunkortasunaren dimentsio sozial eta ekonomikoa.

Bestalde, Ekintza Plan hau ez da tresna eraginkorra izan udalerria kudeatzeko, ezta departamentu bakoitzeko eguneroko lanerako ere. Beraz, **Plana iraunkorragoa eta eraginkorragoa izatea** lortu beharko litzateke.

1.go taula: Zarauzko TA21 kualitatiboki ebaluatetik ateratako emaitzak eta ondorioak (GPS 21).

Ondorio horietatik eta Ekintza Planaren arlo tematiko bakoitzaren gainean ondoren egiten den azterketatik abiatuz, eta datozen hilabeteetan egingo den Planaren berrikusetari begira, Txosten honen amaieran proposatzen dira datozen urteetan lortu beharreko erronkak, udalerrri iraunkorrago bat lortzeko bidean aurrera egin ahal izateko.



1 NATURAREN ETA PAISAIAREN BALIOAK



HELBURUAK


Naturaren eta paisaiaren balioak sustatzea, udalerrriaren elementu singular eta berezi gisa

- Udalerrriaren biodibertsitatea eta paisaia babestea.
- Lurzoria babestea balio natural gisa, eta degradatutako lurzorua berreskuratzea.
- Udalerrriaren baliabide naturalak babesteko irizpideak udal-politiketan sartzea.
- Udalerrriaren balio naturalen hedapena egitea, eta herritarrek sentsibilizatzea ingurune naturalaren babesaren alde.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
BALIO NATURALEN LERROA %45	16
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA %45	

LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA




Arlo honetan egindako jarduketaren barruan, azpimarratzekoak dira, esanguratsuenak direlako, honako hauek:

- **Iñurritzako Biotopoaren Plan Berezia** onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan.
- Zarauzko **hondartzako erabileraren erregimena arautzen duen ordenantza** onartzea.
- Zubiondotik Iñurritzako erreken gaineko oinezkoentzako zubiraino doan **oinetzkoentzako bidea** birgaitzea.
- Hainbat **dibulgazio-panel** jartzea: Iñurritzako biotopon, Santa Barbaran, Pagoetan, etab.
- **Santa Barbarako zona babesteko eta kontserbatzeko Plan Berezi** bat kontratatzea. Erkidegoarentzat Garrantzizko Toki izendatuta dago zona hori (Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa).
- **Itsasertzeko dinamikari buruzko ikerketa-proiektu** bat abian jartzea.

TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK

BABESTUTAKO AZALERA



Iturria: Zarauzko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

EMAITZEN INTERPRETATZIOA

Iñurritza erreken estuarioa eta haren bi aldeetara dauden itsasertzeko kosta-zirrinda **Biotopo Babestu** izendatu zituzten 1997an. Dunek, padurek eta itsaslabarrek, 50 ha baino gehiagoko azalerarekin guztira, biodibertsitate handiko ingurua osatzen dute, eta aldi berean paisaia berezia eskaintzen dute. Horregatik jarri da interes berezia espazio horren **etengabeko babesean eta leheneratzean**, herritarren aisialdirako eta gozamenerako elementu gisa erabiltzearekin batera.

Bestalde, **Garate-Santa Barbara** kokagunea eta **Pagoetako Natur Parkea**, Erkidegoarentzat Interesezko Toki izendatuak biak ere, interes handiko lekuak dira duten balio ekologikoa-gatik, eta azpimarratzeko da Garate-Santa Barbara kokagunea, bertan dagoelako EAEko artelatzen-basorik handiena. Ingurune naturalaren babesa ikusgai egiten da, halaber, beste tresna batzuen bidez, esaterako, **Sektoreko Lurralde Plana zona hezeetarako, Ibai eta erreketako SLP, Itsasertzeko SLP, Hiri Antolamendurako Plan Nagusian** bertan ezarritako babes-zonak ahaztu gabe inolaz ere.

Horrekin guztiarekin, gaur egun eskura dauden datuekin esan daiteke **gero eta handiagoa dela udalerrriaren babestuta dagoen lurzoria**: 2004an, guztira, % 10,8 zen udalerriko lurzoru hori, eta 2005ean, berriz, % 13,7. Erreferentzia gisa EAEko batez bestekoa hartuz, % 11koa alegia, Zarauzko datua positiboa dela esan daiteke.

Era berean, eta Ekintza Planaren markoan, arreta berezia jarri da **hondartzaren eta haren inguruen kudeaketan**. Etengabeko hobekuntzaren aldeko konpromisoa **ingurumenaren kudeaketa-ziurtagirietan** islatu da (**ISO 14001** eta **EMAS**).

Udalerrriaren ingurune naturala babesteko eta kudeatzeko jarduketak hauek **dibulgazio-kanpainekin** batera egin dira: panel informatiboak jarri dira Talai Mendin, Santa Barbaran, Pagoetan eta Iñurritzan. Horrez gain, Biotopoari buruzko triptiko informatiboak banatu dira, baita hondartzaren erabilerari buruzkoak ere, eta Zarauzko ingurune naturalen ibilbideak egiteko mapak ere argitaratu dira.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

Datozen urteei begira, interes naturaleko kokaguneak babesteko eta kudeatzeko lanarekin jarraitu behar dugu (Iñurritza, Santa Barbara-Mutxio, Talaimendi, Vista Alegre, Pagoeta, la playa, etab.) Modu berean, arreta berezia jarriko da ibai-ingurumenaren ezaugarri naturalak leheneratzeko lanetan.

- **Iñurritza erreken urak desbideratzea Iritako parketik igarotzean.**
- **Igeraingo erreken egoera naturala leheneratzea, Salberdingo auzune berritik igarotzean.**
- **Zarautzek dituen baliabide naturalak azpimarratzea eta horien sustapen turistikoa.**



KALITATEZKO HIRI-ESPazio BAT SUSTATZEA




HELBURUAK

Kalitatezko hiri-espazio bat sustatzea

- Bide-azpiegiturek udalerrian duten eragina murriztea.
- Ondare historikoa kontserbatzea eta lehendik dagoen arkitekturarekiko harmonikoa izango den hirigintza sustatzea.
- Etxebizitzaren politika osoa sustatzea, gainerako udal-politikak kontuan izango dituen.
- Udal-ekipamenduen hornidura hobetzea.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
HIRI- ESPAZIOREN LERROA %50	10
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA %45	



Ondoren erakusten dira arlo honetan egin diren jarduketak adierazgarrienak:

- ▶ **HAPN** (Hiri Antolamenduko Plan Nagusia) eta **Parte Zaharreko Plan Bereziaren** aurrerakina onartzea.
- ▶ **Zarautz Dorrea** birgaitzea eta egokitzea museo gisa erabiltzeko.
- ▶ **Santa Mariako aztarnategiaren** osoko kudeaketa.
- ▶ Udal **liburutegia** birgaitzea eta zabaltzea eta **Euskadiko Liburutegien Sarean** sartzea.
- ▶ Ekipamenduak hornitzea: **Kiroldegi** berria, **Udalaren bulegoetarako** eraikin bat, **euskalategi** bat, **ludoteka** bat eta **babespeko apartamentuak** eraikitzea, **azoka** eta **Photomuseuma** birgaitzea, **Eskualdeko Osasun Zentro** bat, eta **Orokietako Herri Eskolarentzat** eta **Lizardi Lizeoarentzat** eraikin bana (azken bi hauek, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira) egitea.
- ▶ Tasatutako Etxebizitzaren Udal Ordenantza onartzea, eta **650 inguru etxebizitza** babestu planifikatzea, epe labur edo ertainean egiteko, **Kortazar**, **Aldapeta** eta **Salberdinen**.

TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK



EMAITZEN INTERPRETATZIOA

Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana ezartzearekin batera, **Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusi eta onartu da**. EAEko Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 legea indarrean sartzearekin batera, planteamendu orokorra legean zehaztutakoari egokitu zaio.

Lurzoru artifizializatuaren ehunekoa, udalerriarren lurzoru osoarekiko % 17,3koa da, EAEko batez bestekoa baino handiagoa. Halere, kontuan hartuz Zarauzko hazkunde-asmoez jada artifizializatutako lurzoruak erabiltzea aurreikusten dela, zenbateko horrek bere horretan jarraituko duela uste da.

Bestalde, **lurzoruaren erabileraren intentsitateari** dagokionean, 2005 eta 2006 artean, lurzoru artifizializatua 9.000 biztanle/km2 izatetik 9.413 izatera pasatu da, seguruenik, Zarautzek 2005 eta 2006 artean bizi izan duen biztanle-hazkundearen ondorioz.

Zerbitzu publikoen eskuragarritasuna 2008ko Ekobarometroak emandako informazioan oinarrituta neurtu da. Zerbitzu publiko jakin batzuetara 15 minutu baino gutxiagotan oinez

iritsi ahal izateari buruz herritarrek duten pertzepzioari egiten diote erreferentzia datu horiek, sexuka banatuta, betiere, hiri-espazioarekin lotutako bizi-kalitatearen adierazle gisa ulertuta. Zarautzen zerbitzu publikoen eskuragarritasuna egokia dela esatera garamatza emaitza horien lehen interpretazio batek; izan ere, galdetutako herritarren % 82k baino gehiagok uste du oinarritzko zerbitzu publikoak beren etxebizitzetatik 15 minutu baino gutxiagora daudela oinez.

Ondarearen kontserbazioari dagokionean, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren markoan, udalerriarren Ondare historikoa biltzen duen Katalogoa prestatu da. Gainera, babes-neurri jakin batzuk zehaztu dira, eta ondorioz, hiri-espazioa nabarmenki hobetu da. **Santa Mariako Aztarnategian** edo **Zarautz Dorrean** egindako jarduketak, egindako lanaren adibide bikaina dira. Nabarmentzekoa da, berritzaileak izateagatik, informazioaren teknologia berrien erabilera udalerriarren ondarea ezagutzera emateko **Menosca proiektuaren bidez**.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

- **Dagoeneko projektututako azpiegitura handien eragina, ahal den neurrian, kontrolatzea (N-634aren sahiesbidea, autopistaren 3. bidea, trenaren lur azpiratzea...).**
- **Babespeko etxebizitzak sortzeko aurreikusitako sustapenak exekutatzeko.**
- **Udalerriarren garapen ekonomikoaren beharrak aztertzea, hirigintzan egiten diren parte-hartzeek merkataritza-ardatzak sortzen lagun dezaten.**
- **Hiri-paisaia zaintzea, hirigintzako jarduketaren diseinuaren ikuspegi oso bat izanez, eta udalerriarren berdeguneak artikulatzeari arreta eginez.**
- **Santa Mariako Aztarnategiari lotutako museoak eta kanpo aldeak dituzten aukerak aztertzea, bai eraikinari berari dagokionean bai edukiari eta baita haren kudeaketari dagokionean ere..**
- **Arte eszenikoaren zentro bat eta gaztegunea eraikitzea eta abian jartzea.**



3 OSOKO PLANIFIKAZIOA MUGIKORTASUN IRAUNKOR BATERAKO



HELBURUAK

Ibilgailuen trafikoa antolatzea eta udalerrian dauden ibilgailu pribatuen kopurua murriztea.

Garraio-modu iraunkorrak sustatzea, hiri-plangintzan egoki diren neurrian sartuz.

Beharrezko azpiegiturak sortzea hiri-erdialdean ibilgailuen trafikoa gutxitzeko.

Herritar guztien irisgarritasuna bermatzea arkitekturaren, hirigintzaren, garraioaren eta komunikazioaren arloetan.


Udalerriko aparkalekuen kudeaketa hobetzea.

Kalitate akustikoa hobetzea.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
MUGIKORTASUNAREN LERROA %55	10
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA %45	



LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA



Arlo honetan hauek dira jarduketa nabarmenenak:

- ▶ **Mugikortasun Plana** onartzea 2005ean.
- ▶ **Irisgarritasun Plana** onartzea 2005ean.
- ▶ **TAO sistema** hiriaren erdialdean eta hondartza inguruan abian jartzea.
- ▶ **Hiri-autobusen bi linea** abian jartzea.
- ▶ Oztopo-zutoinak edo piboteak jartzea **hiriaren erdialdeko zona bat oinezkoentzako zona** bihurtzeko.
- ▶ **Bide Hezkuntzako** ikastaroak ematea ikastetxeetan.
- ▶ **Zebra-bide goratuak** eraikitzea, bide jakin batzuetan abiadura murrizarazteko.

TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK



EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Azken hamarkadetan ibilgailu pribatuaren erabilerak nabarmen egin du gora, bizitzeko estiloan eta hiri-ereduetan ere gertatu diren aldaketak direla-eta. Errealitate horrekin ohartuta, mugikortasun iraunkor baten aldeko politikak udalerrien erronka nagusietako bat bihurtu dira, aldaketa klimatikoaren borrokarekin gertatu den bezala. Zentzu horretan, **garraioa da berotegi-efektuko gas-isurketa gehien eragiten dituen sektoreetako bat**, bereziki tokian tokiko mailan, eta arlo horretantxe gero eta azkarrago egin dute gora azken urteotan.

Ekobarometroaren datuek adierazten dutenez Zarautzen egunero egiten diren **joan-etorrien kopuruak** nabarmen egin du gora 2004 eta 2008 artean, % 41,5 arte. Gauza bera esan daiteke **ibilitako batez besteko distantziari** buruz ere: eguneko 12,67 km/biztanle izatetik 15,05 izatera pasatu baita. Oro har, ikusten da joan-etorrien mota desberdinen arteko banaketa erlatiboa antzekoa dela. Halere, ibilgailu pribatuetan, autobusean eta oinez egindako joan-etorriek

apur bat behera egin dutela, eta aldiz, trenez, eta bereziki, bizikletan egindakoek gora egin dutela ikusten da. Bizikletaren erabilerak poliki-poliki gora egiten jarraitzen du, eta 2004 eta 2008 artean bikoiztu egin da.

2005ean onartu zen **Mugikortasun Planak** lehenasuna ematen dio oinez eta bizikletan egindako joan-etorriei, gainerako garraio bideen aurrean. Azpimarratu behar da Plan hori **udalerriko sektore desberdinen ikuspegia** kontuan hartuz egin zela, haurrei eta haurren mugikortasun-beharrei garrantzi berezia aitortuz.

Azkenik, **irisgarritasunari** dagokionean, 2005ean onartutako Plana, gaur egun, zati batean exekutatu da. Oraindik ere badira mugikortasuna mugatzen duten eta hainbat pertsona udaleko eraikin, instalazio edo ekipamenduetara iristea zailtzen duten oztopoak kentzeko egiteke dauden jarduketa batzuk.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

- **Mugikortasun iraunkorra lortzeko lagungarriak diren trazatu-aldaketek eskaintzen dituzten aukerak, batetik, eta azpiegiturak diseinatzeko eta egiteko aukera berriak, bestetik, baliatzea.**
- **Bidegorri-sare bat artikulatzea.**
- **Disuasio-aparkalekuak anezka-autobusekin batera prestatzeko aukera aztertzea, uda-partean aparkatzeko arazoak arintzeko.**
- **Herrien arteko garraio publikoaren zerbitzua hobetzea.**
- **Hiriaren erdialdea oinezkoentzako egokitzeko lanak hobetzea, oztopo-zutoinak edo piboteak ixteko ordu kopurua luzatuz eta egoki diren lan zibilak exekutatu.**
- **Irisgarritasun Planaren exekuzioa sustatzea.**
- **“Eskola bide” seguruak zehaztea.**
- **“Bizigune eremuak” ezartzeko aukerak lantzea (abiadura mugatu oinezkoen lehenasunekoak).**
- **Bizigune eremuetan lur azpiko aparkalekuen bideragarritasuna aztertzea.**



HONDAKINEN MINIMIZAZIO, BERRERABILERA ETA BIRZIKLATZEA



HELBURUAK

Hondakinen minimizazio, berrerabilera eta birziklatzea sustatzea, eta ingurumenean duten eragina gutxitzea

Herritarrek sentsibilizatzea eta haien parte-hartzea sustatzea hondakinen kopurua murrizteko eta hondakinak behar bezala kudeatzeko.

Hondakinak sailkatuta eta behar bezala bildu ahal izateko, udalerrriak behar dituen azpiegitura egokiak eskaintzea.


Hondakin arriskutsuak kontrolatzea, eta jatorri industrialeko hondakinen gutxitzea sustatzea.

Eraikuntza-hondakinak kontrolatzea, kontrolik gabe bota ez daitezten.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
HONDAKINEN LERROA	12
%44	
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA %45	

LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA




Arlo honetan hauek dira jarduketa nabarmenenak:

- ▶ **Etxez etxe gai organikoak jasotzeko** esperientzia pilotu bat hastea, Urola Kostako Mankomunitatearen eskutik.
- ▶ **Atez ateko bilketa selektiboko sistema** ezartzea, Abendaño, Errotaberi eta Hegoalde industrialdeetan dauden enpresentzat.
- ▶ Hondakinen **bilketa selektiboa** hondartzan.
- ▶ **"Onenen artean gaude, baina hobetu dezakegu"** kanpaina egitea, dibulgazio-liburuxken bidez eta Ztb eta Teledonosti telebistetan emandako iragarkien bidez.


TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK

HIRI-HONDAKINEN SORKUNTZA



Iturria: Zarauzko Udala

BIRZIKLATZEA ETA BILKETA SELEKTIBOA



■ Zarauzko Udaleko datuak ■ EAEko datuak
Iturria: Zarauzko Udala eta Ingurumen Antolamendu Saila

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Zarauzko hondakinen kudeaketa modu mankomunatua egiten da eskualdeko gainerako udalerriekin batera, eta **prebentzio, murrizketa, berrerabilte eta birziklatzeko estrategia osoko** batean oinarrituta dago.

Gainerako tokian tokiko iraunkortasun-politiketan bezala, honetan ere, ezinbestekoa da **herriaren parte-hartze aktiboa**. Helburu horrekin, asko dira Zarautzen Tokiko Agenda 21en markoan egin diren sentsibilizazio-kanpainak: "Onenen artean gaude, baina hobetu dezakegu" kanpaina, merkatarien artean liburuxkak banatzea, ikastetxeetara zuzendutako kanpainak, etab.

Halere, nahiz eta ahaleginak egin diren, **hondakinen sorrerak** gora egiten jarraitzen du, modu apal samarrean izan arren. Azken datuek adierazten dute 2007. urtean 1,53 kg hondakin sortu zirela biztanle eta eguneko, 2005eko EAEko batez besteko balioa baino apur bat handiagoa. Izan ere, horixe zen eskuragarri genuen azkeneko EAEko datua: 1,49 kg/biztanle/egun.

Birziklatzeari eta **bilketa selektiboari** dagokienean, azken urteotako joera positiboa da, tasak gora egiten jarraitzen baitu. 2000 eta 2007 artean, era selektiboan bildutako hondakinak hondakin guztien % 10,8 izatetik % 15,9 izatera pasatu dira. Halere, kopuru hori oraindik urruti dago Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren helburutik. Bertan ezartzen da, 2010ean, EAEko udalerriek sortzen dituzten hondakin guztien % 35 era selektiboan bildu beharko luketela.

Azpiraratu behar da duela gutxi Urola Kostako Mankomunitateak abian jarri duen ekimena **gai organikoak biltzeko eta ondoren gai horiekin konposta egiteko**. Horretarako, edukiontzi batzuk banatu dira udalerriri osoan zehar, Zarauzko bizilagun guztiei hondakinen atal hori jatorrian bertan sailkatzeko lana errazteko asmoz.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

Datozen urteei begira, **Urtetako zabortegea 2012an ixteko** aurreikuspenarekin, hondakinei dagokienean etorkizunerako erronkak **prebentziora bideratutako ekimenak abian jartzea** eskatzen du, **jatorrian hondakinen kopurua murrizteko** konpromiso irmoarekin, hondakinen kudeaketa iraunkorraren oinarri gisa.

- **Dendetan atez ate kartoia biltzea.**
- **Hondakin arriskutsuen eta, bereziki, industria txikiek sortzen dituztenen kontrola areagotzea.**
- **Gai organikoen jatorriko sailkapena sustatzea, eta biltzen den hondakin-atala handiagotzea, hondakinaren kalitatea bermatuz.**



HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA ETA IRAUNKORTASUN-IRIZPIDEAK UDAL-KUDEAKETAN TXERTATZEA



HELBURUAK


Iraunkortasunaren balioetan sentsibilizatzea eta ingurumenaren kudeaketa sustatzea

- Ingurumenaren udal-kudeaketarako behar diren giza baliabideak egotea sustatzea eta barne-koordinazioko organoa indartzea
- Udalaren kudeaketa-politikan ingurumen-irizpideak sartzea
- Ingurumenaren babesa sustatzea, araudi-bidezko baliabideak erabiliz
- Herritarrek inplikatzeko Tokiko Agenda 21en kudeaketan
- Herritar guztien heziketa sustatzea garapen iraunkorraren arloan

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
INGURUMENAREN KUDEAKETAREN LERROA	10
%50	
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA	
%45	

LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA




Arlo honetan hauek dira jarduketa nabarmenenak:

- ▶ Lanpostu bat sortzea eta gero **ingurumen-teknikari bat kontratatzea Tokiko Agenda 21 koordinatzeko.**
- ▶ **Herritarren parte-hartzearen zinegotzigoa eta Agenda 21en zinegotzigoa** sortzea.
- ▶ **Zarauzko hondartzaren** ingurumen-ziurtagiria, **ISO 14001:2004** eta **EMAS** arauekin bat.
- ▶ **Herritarrek parte hartzeko foroak** egitea **Hiri Antolamenduko Plan Nagusia** berrikusteko, **Mugikortasun Plana** prestatzeko, **TA21en** Ekintza Plana berrikusteko eta **etxebizitza-premiak** aztertzeko, beste gai batzuen artean.
- ▶ **Eskolako Agenda 21** garatzea udalerriko ikastetxeetan: La Salle, Salvatore Mitxelena, Antoniano, Maria Inmaculada, Orkieta eta Lizardi Ikastetxea.

TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK


ZARAUZKO TOKIKO AGENDA 21-ARI BURUZ HITZ EGITEN ENTZUN AL DUZU??



■ Bai ■ Ez ■ Ed/Ede

Iturria: Ihobe, Ekobarometroa 2008.

GUSTATUKO AL LITZAIZUKE PARTE-HARTZE FOROETAN PARTE HARTZEA?



■ Bai ■ Ez ■ Ed/Ede

Iturria: Ihobe, Ekobarometroa 2008.

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Herritarren parte-hartzea iraunkortasunerako gakoa da, eta Tokiko Agenda 21en zutabeetako bat. Printzipio horrekiko koherentziatzat, Udalak 2001ean Aalborgeko Gutuna sinatu zuenetik gaur egun arte, guztira **15 foro** egin dira. Foroaren lehen fasea, Planaren diseinu-fasean eta ezarpen urteetan, oso aktiboa izan zen, bai egin ziren bilkuren kopuruari bai parte-hartzaileen kopuruari eta haien inplikazioari dagokionean ere. Halere, sendotu ordez, inplikazio hori indarra galtzen joan da urteak igaro ahala.

Dena den, azken lau urteotan, **herritarrek Tokiko Agenda 21i buruz dakitena** gehiago da, eta aldi berean, **Foroetan parte hartzeko duten interesa** ere areagotu egin da, eta hori itxaropentsua da Ekintza Planaren berrikusteari begira. Zentzu horretan, herritarren parte-hartzea azpimarratzea da Zarautzen etorkizun-errotetako bat, iraunkortasunaren aldeko apustu horretan.

Bestalde, lehen urratsak eman dira **Erosketa Publiko Berdearen** arloan: gero eta hedatuagoa dago ekimen hori

Administrazio osoan, eta iraunkortasun-irizpideak sartzea eskatzen du ondasunak erostean eta zerbitzuak kontratatzean. Udalak egindako ekintzen artean, aipatzeko modukoak dira paper birziklatua erostea Udalaren Zerbitzu Teknikoen Departamenturako, eta ingurumen-irizpideak sartzea hondartzako zerbitzu jakin batzuk esleitu edo emateko orduan.


Duela gutxi eman zaio hedapena Udaleko langileei zuzendutako **Iraunkortasuneko praktika onen jarraibidea** delakoari. Gainera, ekimen hori Udalaren web-orriaren bidez eman da ezagutzera, herritarrentzat ereduagarria izan dadin.

Hezkuntzari dagokionean, berriz, iraunkortasunari buruzko ikastaro eta tailerrak emateaz gain, 2003az geroztik udalerriko ikastetxe guztiak daude **Eskolako Agenda 21en** inplikaturatuta, eta marko horretan landu dituzte hainbat gai, esaterako, biodibertsitatea, mugikortasuna, kontsumo arduratsua, zarata, ura edo energia.


ETORKIZUNARI BEGIRA...

Epe laburrera, eta datozen hilabeteetan Ekintza Planak izango duen berrikuspenera erreferentzia-marko gisa hartuz, beharrezkoa da:

- **Zarauzko Parte-hartzearen Plan Zuzentzailea abian jartzea, herritarren parte-hartzearen oinarriak berregituratzeko.**
- **Udal-politikan zeharkakotasun-maila handiagoa lortzea, eta Udalaren barnean departamentuen arteko komunikazioa eta lana sustatzea.**
- **Erosketa Berdearen Plana artikulatzea udalean, arlo honetan jada egiten diren ekintzak bateratuko dituen, eta Udalaren sail eta departamentu guztien artean modu koordinatuan lan egitea inplikaturatzen duena.**



URAREN KONTSUMOA MURRIZTEA ETA KUDEAKETA INTEGRALA HOBETZEA



HELBURUAK


Ur-kontsumoa murriztea eta hondakin-uren saneamendu-sistema hobetzea

- Ur-horniduraren sarea hobeto kudeatzea.
- Etxebizitzetan, zerbitzuetan eta udal-bulegoetan ur-kontsumoak murriztea.
- Hondakin-uren tratamendua hobetzea eta udalerriko isuri industrialak kontrolatzea.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
URAREN LERROA	9
%53	
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA %45	

LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA




Arlo honetan hauek dira jarduketa nabarmenenak:

- ▶ **Hondartzako dutxetan sakagailuak** jartzea uraren jatorriari buruzko informazio-panelek: lurpeko ur-ziklo itxi batetik dator ur hori.
- ▶ **Urtetako eskualde-zaborte giko** lixibiatuen putzuaren isuria saneamendu-sarera birbideratzea.
- ▶ **Zubiondon banatze-sare** bat egitea, ur beltzak Iñurritzako errekarara ez iristeko.
- ▶ Doitasunezko makinak eta tresnak erabiltzea **sareko ihesak detektatzeko**.
- ▶ Tratatu gabeko ura erabiltzea **kaleak garbitzeko**.
- ▶ Hornidura-sare osoaren **GIS** bat egitea.

TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK

ETXEBIZITZETAKO UR-KONTSUMOA



Iturria: Gipuzkoako Ur Patzuergoa

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Etxebizitzetako ur-kontsumoa Zarautzen jaisten ari da; azken hiru urteotan 148 l/biztanle/egun izatetik 135era pasatu da. Zalantzarik gabe, datu positiboa da, eta ura zentzuz erabili behar diren inguruan herritarrek gero eta kontzienteago direnaren seinale. Are garrantzitsuagoa da hori, kontuan izanez gero uraren kontsumo osoaren % 78 inguru sektore horretan egiten dela udalerrian.

Hornidura-sare osoari aldian aldiko ikuskapenak egiten zaizkio, izan ditzakeen ihesak eta ur-galerak detektatzeko; gaur egun horiek eskari osoaren % 20 inguru suposatzen dute. Sare osoaren **GIS** bat prestatze-lanetan dago, ur-galerak gutxiaraziko dituen doitasunezko maila handiago bat lortzeko.

Bestalde, udalerriko hondakin-urak eta ur industrialak zuzenean itsasora isur ez daitezela, hainbat ekimen burutu dira, ur horiek Hondakin-urak arazteko plantara eramateko; besteak beste, Zubiondoko **banatze-sarea** egitea edo Zelai Ondoko hainbat eraikin **Saneamendu orokorreko 5. hodi-biltzailearekin** lotzea.

Duela gutxi jarri da abian **sentsibilizazio-kanpaina** berri bat; itsasgarri batzuk banatu dira udalerriko hainbat lekutan, uraren kontsumo arduratsuak nolako garrantzia duen adieraziz, herritar guztiei mezu bat helarazteko asmoz.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

- **Uralitazko hodiak material sendoagoz egindako hodi alternatiboekin ordeztzea poliki-poliki.**
- **Kiroldegiko igerilekuko ura berritzeko tasa jaistea, urteko 80.000 m3 aurrezteko aurreikusiz.**
- **Banatze-sarearen bigarren fasearen exekuzioa Mendilautako zonan.**
- **Udal-instalazioetako ur-kontsumoaren gaineko kontrola areagotzea.**
- **Landa lurreko etxebizitzetan ur hornidura hobetzea.**



ENERGIA AURREZTEA ETA ENERGIA-EFIZIENTZIA



HELBURUAK


Energia-kontsumoa optimizatzea eta atmosferara egindako isurketak gutxitzea

Etxebizitzen eta zerbitzuen sektorean energia-kontsumoa murriztea eta optimizatzea. Udal-administrazioan energia aurrezteko eta energia-efizientiarako neurriak aplikatzea. Sektore guztietan energia-iturri berriztagarrien erabilera sustatzea. Atmosferara egindako isuriak kontrolatzea eta haien murrizketa sustatzea.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
ENERGIA LERROA	
%21	17
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA %45	

LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA




Arlo honetan hauek dira jarduketa nabarmenenak:

- ▶ **Argiteria publikoaren** gainean ekintzak burutzea: fluxu-erreguladoreak instalatzea eta luminariak aldatzea.
- ▶ **Energia-auditoria** bat egitea Udal Kiroldegian. Udal Kiroldegian **energia aurrezteko eta energia-efizientziarako** sistema eta neurri konkretuak eta baita **energia-iturri** berriztagarriak ere sartzea.
- ▶ **Eguzki-plakak** instalatzea Eguneko Zentroan.
- ▶ Eguzki-plaka fotovoltaikoak jartzea **Orokieta** ikastetxean.
- ▶ Poliki-poliki **gas naturala** sartzea **udal-eraikin guztietan**.


TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK

ELEKTRIZITATEAREN KONTSUMOA GUZTIRA



Iturria: Iberdrola, 2007

ELEKTRIZITATEAREN KONTSUMOA, SEKTOREKA



Iturria: Iberdrola, 2007

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Zientzialarien esanetan gizakiaren jardura da planeta osoa berotzearen eragile zuzena, eta berotze hori erregai fosilen kontsumo gero eta handiagoagatik gertatu da batez ere. Nabarmena da, beraz, aldaketa klimatikoari aurre egiteko edo hura arintzeko estrategiak funtsean **energia-eredu berri batean** oinarritu behar direla, **aurreztean eta kontsumo optimizatzean, eta horrekin batera, paraleloan, energia-iturri berriztagarriak erabiltzean oinarritutako eredu**a, hain zuzen ere.

Zarautzen, **elektrizitatearen kontsumoak** bere horretan iraun du azken urteotan, gutxi gorabehera 3,7 MWh/biztanle/urte inguruan. Kontsumo hori sektoreka nola banatzen den aztertuz gero, kontsumoaren erdia etxebizitzetako dela ikusten da. Bestalde, zerbitzuen eta industriaren sektoreetan

egiten den kontsumoa % 32koa eta % 20koa da, hurrenez hurren, eta horrek adierazten du norantz bideratu behar diren energia-kontsumo -kasu honetan, elektrizitatearen kontsumo- jaisteko politikak.


Udal-bulegoei dagokienean, **energia-auditoria bat egin da Udal Kiroldegian**, eta emaitza horiek izan dira Energia Aurrezteko Plana diseinatzeko oinarria. Halaber, Eguneko Zentroan eguzki-plakak jarri dira, eta energiaren kontsumoa jaisteko eta energia-efizientzia hobetzeko ondorengo neurriak hartu dira: kontratatutako potentzia igotzea edo jaistea, ordutegiaren bereizketa aldatzea, eta kondentsadore-bateriak ezartzea.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

- **Gehiago aurrezte**a eta **energia-efizientzia handiagotzea, bai argiteria publikoan bai udal-eraikinetan ere.**
- **Energia-efizientzia lortzeko neurriak hartzea eraikin berrietan eta eraikin zaharrak birgaitzeko lanetan.**
- **Udal-eraikinetan energia-auditoriak egitea.**



JARDUEREN KUDEAKETA ETA INGURUMEN-ARRISKUAREN PREBENTZIOA



HELBURUAK

Jardueren kudeaketa-sistema sustatzea eta ingurumen-arriskuaren prebentzio-mekanismoak aplikatzea


Udalerriko jarduerak hobeto kontrolatzea.

Larrialdietako udal-plana eguneratuta mantentzea, eta enpresek betetzen dutela egiaztatzea.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
INGURUMEN-ARRISKUAREN LERROA %42	9
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA %45	

LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA




Arlo honetan hauek dira jarduketa nabarmenenak:

- ▶ Jarduera-errola bat egitea Abendañoko sektore industrialean, funtzionatzen ari diren 122 jarduera industrial identifikatuz.
- ▶ Hondartzan larrialdien simulakroak egitea.

TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK

JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA NATUR BALIABIDEEN KONTSUMOAN



Iturria: Gipuzkoako Ur Partzuergoa eta Iberdrola, 2006.


EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Udalak etengabe udalerriko **jarduerak kontrolatzen ditu eta haien jarraipena egiten** du, ingurumen-eraginaren edo -arriskuaren alorre dagokienean aplikatzeko den araudia bete dadila zainduz era horretan. Azken urteotan, **datu-base** bat egin da ondoren aipatzen diren lekuetan egindako ikuskapenetan bildutako informazioa jasotzeko: lokalak eta ikuskizun publikoetako instalazioak, jolas-jarduerak, dendak, industriak eta lurzoru urbanizaezinean egindako jarduerak.

Gainera, Udalak badu **Larrialdi Plan** bat, udalerria eta herritarrak babesteko arrisku-egoera bat egon daitekeen egoeratan aplikatzeko modukoa. Plan hori eguneratuta mantentzeko asmoz, sakon berrikusi da, eta egoki diren aldaketak egin zaizkio.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

- *Etorkizunean udalerriak jasan ditzakeen kalte berriekiko -adibidez, aldaketa klimatikotik eratorritako kalteekiko- ahulezia-maila aztertzea, eta horietara egokitzeko beharrezko neurriak ezartzea.*
- *Jardueri buruzko ezagutza zabaltzea, eta haien gaineko kontrola bizkortzea, kalte handiagoo eragiten dutenei lehentasuna emanez.*
- *Instalazio pribatuetan Larrialdi Planak egin daitezten sustatzea, bereziki, ekipamenduen eraikinetan.*



HELBURUAK


Udal-ekonomiaren sustapena bultzatzea

- Enpresa-ekimen berriak abian jar daitezzen sustatzea.
- Tokiko lehen sektorea babestea eta sustatzea.
- Turismoa garatzea eta sustatzea udalerrian.
- Lan-merkatura sartzeta eta aukera-berdintasuna sustatzea.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
GARAPEN EKONOMIKOAREN LERROA	1
%50	
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA	
%45	

LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA




Udaltalde 21en markoan Ekintza Plana berrikusteko prozesuaren ondorioz sartu zen lerro hau. Prozesu hark arlo sozialak eta ekonomikoak Planean sartzeta ekarri zuen berekin, eta horrek Ekintza Plan berri bat ekarri zuen, Osoko Bilkuran 2006an onartu zena. Horregatik dago eskura soilik 2006 eta 2007 urteetako informazioa. Urte horietan Planean jasotako ekintza bakarren % 50 exekutatu zen: Zarauzko emakumeen eta gizonen arteko Aukeren Berdintasunerako Planaren Garapena (2004-2007).

Tokiko garapenaren arloan gehien nabarmentzekoak diren jarduketak, kasu honetan, Berdintasunaren arlora mugatzen dira, eta hauek dira:

- ▶ **Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako I. Plana** garatzea (2004-2007).
- ▶ **Azterketa-diagnostiko** bat egitea Zarauzko emakumeen eta gizonen egoerari buruz, aukera-berdintasunari dagokionean, Zarauzko II. Berdintasun Plana garatu ahal izateko aurreko urrats gisa.
- ▶ **Berdintasun Zinegotzigoa** sortzea, eta ondoren, Bulego bat irekitzea eta teknikari bat kontratatzea.
- ▶ Udalerriko **gizonekin** berdintasunaren inguruan **lan egiteko talde bat** sortzea.
- ▶ **Udal-pertsonala trebatzea** berdintasunaren arloan.

TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK



■ Langabezia-tasa guztira ■ Langabezia-tasa emakumeengan Iturria: Langai, 2006.

EMAITZEN INTERPRETATZIOA

Ekintza Planean duela gutxi sartutako gai-eremu bat denez, eta oraindik Planean ez duenez leku handirik, ez da oraindik tokiko garapen ekonomikoaren arloan ekintzarik aurreikusitua, ezta turismoa sustatzeko ere, nahiz eta horiek Planaren helburu diren.

Berdintasunaren arloan, nabarmendu behar da Udala Berdintasunaren sartu dela, alegia, Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udalerrien euskal

sarean. Gaur egun, aukera-berdintasunari dagokionean, Zarauzko emakumeen eta gizonezkoen egoerari buruzko diagnostiko bat egiten ari dira, eta haren emaitzak izango dira Udalerrian II. Berdintasun Planaren oinarri.

Arlo honetako adierazle batzuek, emakumeen langabezia-tasa handiak esaterako, erakusten dute nolako beharra dagoen emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aldeko horrelako ekimenetan sakontzeko.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

Tokiko ekonomia eta turismo iraunkorra garatzea udalerrian garapenerako estrategikoak dira. Zentzu honetan, turismoaren sektoreari dagokionean, beharrezkotzat jotzen da datozen urteei begira:

- **Turismo iraunkor baten aldeko apustua mantentzea eta, ahal dela, tinkoago egitea.**

- **Edozein eratako ezgaitasuna duten pertsonak turismo-zerbitzuetara, dendetara eta ostalaritza-zerbitzuetara errazago irits daitezten laguntzea.**

Berdintasunaren arloan, Zarautzek erronka hauek ditu datozen urteei begira:

- **Berdintasunaren Aholku Batzorde bat** sortzea.

- **Berdintasunaren II. Plana** sortzea.

- **"Berdintasun Txokoa" sortzea, alegia, ondorengo arlo guztiak bilduko dituen gunea: berdintasunaren inguruko ekintzak, aholkularitza-zerbitzu bat, laguntza juridikoa eta psikologikoa, ikastaroak emateko gelak, elkarteentzako topalekuak eta ikuskizun-areto bat.**

- **Emakumeentzako jabeakuntza-eskola bat abian jartzea.**



HERRITARRENTZAKO OINARRIZKO ZERBITZUAK HORNITZEA



HELBURUAK

Oinarrizko zerbitzuak bermatzea

Gizarte- eta osasun-zerbitzuak garatzea.

Hirugarren adinekoen bizi-kalitatea hobea dadin sustatzea.

Droga-mendetasunaren prebentziorako neurriak hartzea.


Beharrezko tresnak ezartzea udalerria informazioaren eta ezagutzaren gizartearen integrazteko.

Euskararen erabilera normaltzea.

EGINDAKO JARDUKETAK

LORTUTAKO EZARPEN-MAILA	LERRO HAU ERATZEN DUTEN EKINTZEN KOPURUA
OINARRIZKO ZERBITZUEN LERROA	7
%43	
LERROEN BATEZ BESTEKO BALIOA	
%45	

LERRO HONEN EZARPEN-MAILAREN BILAKAERA, URTEKA



Lerro estrategiko honetan bilduta dauden gizarte-zerbitzuei buruzko ekintzak, Udaltalde 21en markoan Ekintza Plana berrikusi izanaren ondorioz sartu ziren Planean. Horregatik daukagu 2005, 2006 eta 2007 urteetako informazioa soilik. 2005 eta 2006 urteetan ezarpen-maila jaitsi izanaren arrazoia 2006an ekintza berriak sartzea izan da, eta horrek berekin dakar ekintza guztiekiko ezarpen-maila erlatiboa txikiagoa izatea.



Halaber, argigarri gisa, esan behar da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako alderdiak, atal honi gehiago dagozkionak alegia, garapen ekonomikoaren atalean aztertu direla, Ekintza Planaren egiturak horrela ezartzen duelako.

Arlo honetan hauek dira jarduketa nabarmenenak:

- ▶ Arriskuak gutxitzeko **prebentzioko parte-hartzeak, drogak kontsumitzen diren lekuetan** (Testing programa).
- ▶ Udalak eskaintzen dituen oinarrizko zerbitzuak zabaltzea, **Mendekotasunaren legea** indarrean sartzearekin lotuak daudenak bereziki.
- ▶ **Euskararen Aholku Batzordea** sortzea, ikastetxeekin, euskaltegiekin eta udal-elkarteeekin batera.
- ▶ **WIFI sarearen** zerbitzua instalatzea eta mantentzea udal-liburutegian eta malekoian.

TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK

HERRITARREN GOGOBETASUN-MAILA



Emak. Giz. Iturria: Ithobe, Ekobarometroa 2008.

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Udalak oinarrizko zerbitzu ugari eskaintzen ditu. Halere, argi utzi behar da Ekintza Planean duela gutxi sartu denez leerro hau, hemen erakusten diren emaitzak ez dagozkiola Udalak arlo honetan garatzen dituen ekintza guztiei.

Oro har, zerbitzuak bai herritar guztiei bai behar bereziak dituzten talde konkretuei ere bideratu eta zuzenduak daude. Horixe gertatzen da, adibidez, hizkuntzaren normalizazioaren aldeko jarduketekin edo malekoian WIFI sarea instalatzearekin: herritar guztiak dituzte xede. Eta etxetik etxera laguntza eta hirugarren adinekoentzako egoitza-zerbitzuak, Droga Mendekotasunaren Prebentzio Zerbitzutik garatutako ekintzak edo etxetik indarkeria eta eraso sexualak jasaten dituztenei laguntzeko zerbitzuak, Udaletxeak eskaintzen dituen zerbitzu espezifikoak dira, behar orokor eta konkretuei erantzun bat emateko.

Udalerriko zerbitzu-horniduraren balorazioa herritarrek zerbitzu horiekiko erakutsi duten gogobetetasun-maila oinarri hartuta egin da.

Horretarako, 2004 eta 2008ko Ekobarometroen informazioa erabili da, herritarren lagin adierazgarri bati egindako inkestetan oinarritutako txostenak.

Informazioaren lehen azterketa batetik ondorio gisa atera daiteke herritarrek udal-zerbitzuekiko duten gogobetetasun-maila handia dela, eta kasu batzuetan, oso handia. Halere, 2004 eta 2008 artean, nabarmen egin du behera maila horrek; desberdintasunik handiena herritarren segurtasunarekin lotutako gaietan dago, eta ondoren, garraio publikoko zerbitzuetan, eta hezkuntza-ekipamenduetan.

Bestalde, desberdintasun batzuk ere antzematen dira gizonen eta emakumeen udal-zerbitzuekiko erakusten duten gogobetetasunean. Desberdintasunik nabarmenena udalerriko gizarte- eta osasun-zerbitzuen horniduran eta kalitatean antzematen da: horietan gizonen eta emakumeen bakoaren gogobetetasun handiagoa erakusten dute.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

- **Gizarte-zerbitzuak zabaltzea eta garatzea, gizarteak eskatzen dituen behar berriei egokitzuz.**
- **Udalaren gizarte-zerbitzuen instalazioak hobeto antolatzea, zerbitzu eta arreta hobekien eskaintzeko pertsonari.**
- **Zeharkakotasuna hobetzea, adibidez, identifikatutako gizarte-beharren arabera etxebizitzak eskaintzea bezalako ekimenak abian jartzeko.**



Ondoren jasotzen da, laburpen gisa, Ekintza Plana osatzen duten eta aurreko ataletan aztertu diren gai-eremu bakoitzaren balorazio globala:

	Naturaren eta paisaiaren balioak azpimarratzea	Naturaren eta paisaiaren balioak sustatzea, udalerrriaren elementu singular eta berezi gisa	
	Kalitatezko hiri-espazio bat sustatzea	Kalitatezko hiri-espazio bat sustatzea	
	Planifikazio integratua mugikortasun iraunkorra lortzeko	Ibilgailuen trafikoa antolatzea eta udalerrian dauden ibilgailu pribatuen kopurua murriztea	
	Hondakinen minimizazio, berrerabilera eta birziklatzea	Hondakinen minimizazioa, berrerabilera eta birziklatzea sustatzea, eta ingurumenean duten eragina murriztea	
	Herritarrak sentsibilizatzea eta iraunkortasun-irizpideak udal-kudeaketan txertatzea	Iraunkortasunaren balioetan sentsibilizatzea eta ingurumenaren kudeaketa sustatzea	
	Uraren kontsumoa murriztea eta kudeaketa integrala hobetzea	Ur-kontsumoa murriztea eta hondakin-uren saneamendu-sistema hobetzea	

	Energia aurrezte eta energia-efizientzia	Energia-kontsumoa optimizatzea eta atmosferara egindako isurketak gutxitzea	
	Jardueren kudeaketa eta ingurumen-arriskuaren prebentzioa	Jardueren kudeaketa-sistema sustatzea eta ingurumen-arriskuaren prebentzio-mekanismoak aplikatzea	
	Tokiko garapen ekonomikoa	Udal-ekonomiaren sustapena bultzatzea	
	Herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak hornitzea	Oinarrizko zerbitzuak bermatzea herritarrentzat	

ETORKIZUNeko ERRONKAK

- ▶ Zarauzko Iraunkortasunerako II. Ekintza Plana diseinatzea eta abian jartzea, izaera estrategiko eta eraginkorra emanez, eta bertan udalerriko alderdi sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak modu orekatuan txertatuz.
- ▶ Berotegi-efektuko gas-isurketak murrizteko konpromiso irmoa eta planeta osoa berotzeak izan ditzakeen ondorioetara egokitzeko konpromisoa bere egitea, aldaketa klimatikoa arintzeko eta hartara egokitzeko Tokiko Estrategia baten bidez.
- ▶ Barne-komunikazioa erraztea eta komunikazio-mekanismoak ezartzea Udaleko sailen artean, tokiko iraunkortasunaren aldeko politiken zeharkakotasuna handiagotzeko.
- ▶ Herritarren parte-hartzea suspertzea eta sendotzea Zarauzko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren planifikazioan eta kudeaketan.